

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2018ko 3. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

2018ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak jarraipena eman zion aurreko hiruhilekoan hasi zuen moteltze leunari eta beraren BPGa %2,6 gehitu zen, hots, aurreko emaitza baino hiru hamarren gutxiago. Hori horrela izanda, urte hasieratik puntu erdi bat apaldu da hazkunde erritmoa, Ogasun eta Ekonomia Sailaren taula makroekonomikoan aurreikusitako zenbakiaren oso antzekoa baita. Moteltze hori ez da EAEko ekonomian bakarrik gertatu, ingurune herrialde gehienetan ere hauteman delako. Esate baterako, Europar Batasunak (%1,8) zortzi hamarren galdu ditu 2017ko amaieratik, Euroguneak (%1,6) puntu bat eta hamarren bat, Espainiar ekonomiak (%2,5) sei hamarren eta bai Frantziak (%1,4) bai Alemaniak (%1,2) puntu bat baino gehiago murriztu dute beren hazkunde tasa.

EAEko ekonomiak gaur egun bizi duen moteltzearen jatorria kanpo arloan zegoen, BPGaren hazkundeari bi hamarren kendu zizkiolako. Halere, hirugarren hiruhilekoan kanpo saldoak jokaera neutroa izan zuen. Beraz, hazkundeak galdu zituen hiru hamarrenak barne eskariaren ahultzearen ondorioa dira. Izan ere, hala esportazioek nola inportazioek hazkunde tasa murriztu zuten (%2,2 eta %2,1, hurrenez hurren), bizitasuna galdu zuen eta merkataritza alorreko tentsioek kezkatuta dagoen ingurune batek baldintzatuta.

Barne eskariak 2017an eta 2018ko lehen erdian eskuratu zuen %3,0aren inguruko gehikuntza tasa atzean utzi zuen eta maila apalago batean, %2,5ean, kokatu zen. Agregatu horren bi osagai nagusiek beren urte arteko tasak gutxitu zituzten hirugarren hiruhilekoan, nahiz eta kapital eraketa gordinaren bilakaerak sendotasun handia adierazten duen oraindik. Zehazkiago, osagai hori %4,0 garrantzitsu bat hazi zen epealdian, aurreko hiruhilekoan baino zortzi hamarren gutxiago, baina 2017 osoan baino nabarmen gehiago. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak indarra galdu du (%2,9), baina konpentsatuta geratu da gainontzeko inbertsioak, eraikuntzaren bultzadari esker, daukan sendotasun gero eta handiagoarekin.

Azken kontsumoko gastuaren barnean, bai administrazio publikoen kontsumoak (%1,2) bai familien kontsumoak (%2,3) aldakuntza tasak gutxitu zituzten. Azken kasu horretan, badirudi krisian zehar geroratu zen produktu iraunkorreko erosketak jadanik eginga dela eta, horren ondorioz, kontsumoa gastu ahalmenara gehiago egokitzen ari dela, hau da, hazkunderik ez duten soldata errealek eta %2,0aren inguruan dagoen enplegu sorrerara. Portaera hori bateragarria da aurreko urteetan pilatu zen zorra gutxitzeko nahiarekin.

Sektoreen balio erantsiaren analisiak seinalatzen du jarduera bakoitzak portaera ezberdina izan zuela. Alde batetik, industriak ezustea eman zuen bere erritmoa nabarmen galgatuz, %3,0tik

gorako tasak jasotzetik %1,9 neurritsu batera igaroz. Enpresa handi batzuen egoerak baldintzatu zuen moteltze hori, baina baita inguruneko ekonomiez eta merkataritzako salerosketez sortu den ziurgabetasunak ere. Aitzitik, eraikuntzak %4,8ra areagotu zuen bere hazkunde erritmoa. Azkenik, zerbitzuek egonkortasuneko irudia eskaini zuten eta %2,7 handitu zuten beren balio erantsia, 2016an eta 2017an eskuratu zituzten emaitzetatik urrundu gabe. Dena dela, moteltze arina hauteman da merkataritza, ostalaritza eta garraioa taldean (%2,5) zein administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak atalean (%2,1), gainontzeko zerbitzuen bizitasun handiagoak (%3,2) konpentsatu duena.

Ohikoa izaten denez, enpleguak atzerapenez erantzuten die BPGaren aldakuntzei. Izan ere, enpleguaren hazkunde tasa hirugarren hiruhilekoan %2,0an kokatu zen urte arteko tasan, hots, aurreko epealdian eta 2017ko batez bestekoan baino hamarren bakar bat gutxiago. Tasa horrek esan nahi du azken urtebetean EAEko ekonomiak lanaldi osoko 18.500 lanpostu baliokide inguru sortu dituela. Horri esker, dagoeneko ia 960.000 lanpostu daude ekonomian. Sortu berri diren guztietatik gehienak zerbitzuetakoak dira (%1,9), baina industriak (%1,8) eta eraikuntzak (%3,8) ere parte hartu dute enpleguaren gehikuntzan.

Pausoz pauso, ekonomia jardueraren bizitasuna prezioetara igarotzen ari da. Hain zuzen ere, BPGaren deflatorea %1,3 hazi zen hirugarren hiruhilekoan. Balio hori oraindik ez da oso altua, baina azken zazpi urtean jaso den gorena da. Beste aldetik, kontsumoko prezioak %2,0 baino zertxobait gehiago garestitu ziren azken hilekoetan, energiaren osagaiak baldintzatuta, baina azaroan %1,5era apaldu ziren. Orobat, azpiko inflazioa %0,9an kokatu zen hileko horretan, %2,0ko helburutik urrun oraindik. Azkenik, aurtengo azken hilekoan KPI indizea hamarren gutxi batzuk jaitsiko dela espero da, petrolioak nazioarteko merkatuetan izan duen merkatzearen ondorioz.


Kontu ekonomikoen hirugarren hiruhilekoaren datuak sartuta eta inguruneko gainontzeko aldagaiak eguneratuta, aurreikuspen eredutik eratortzen den taula makroekonomikoak ia ez du ezertan aldatzen aurreko emaitza. Izan ere 2018rako espero den BPGaren hazkundea %2,8 da oraindik eta 2019rako moteltze arina aurreikusten da, %2,3an kokatu arte. Bi kasuetan, oraingo tasak bat datoz aurreko taula makroekonomikoan eman ziren datuekin. Aldaketa txikiak gertatu dira industrian eta eraikuntzan. Lehenengoak aurreikusi zena baino portaera motelagoa izango duela pentsatzen da orain. Eraikuntza, ordea, bizitasun handia erakusten ari da azken hilekoetan. Eskariaren aldetik, aurreikuspen berriak barne eskariaren sendotasunari eta kanpo saldoaren neutraltasunari eusten die. Enpleguari dagokionez, %2,0ko hazkundea aurreikusten da aurtengo urterako eta %1,4koa, berriz, 2019rako, hurrenez hurren 19.000 eta 13.500 lanpostu garbi gehiago direlarik. Langabezia tasak beheranzko joerari jarraipena emango dio, baina erritmo leunagoan.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, munduko hazkundeak sendoa izaten jarraitu zuen, nahiz eta zertxobait moteldu zen aurreko hilekoen aldean. Dena dela, gehikuntza tasa indartsuari eutsi zion. Dauden arriskuei dagokienez, merkataritza alorreko tentsioak hasi dira kalte egiten konfiantza globaleko giroan eta munduko merkataritza ahuldu da. Orobat, moneta politikaren normaltzeak, bereziki AEBetan gauzatzen ari denak, presioa ezarri die azaleratzen ari diren herrialdeei eta ezegonkortasuna ekarri die finantza merkatuei. Halere, oraingoz, ekonomiaren aurreikuspena ona da eta beste krisi batean murgiltzeko probabilitatea txikia da.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Brasil



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Eremu geografikoen artean, gero eta garbiagoa da ekonomia bilakaera ezberdinak bizi direla. Are gehiago, eremu bakoitzaren barruan ere gero eta heterogeneoagoak dira hazkunde tasak. Hain zuzen ere, bizitasun handiagoa hauteman zen AEBetan Europar Batasunean edo Japonian baino. Garapen bidean dauden herrialdeen artean, berriz, Amerika Latinoak sendotasuna irabazi zuten eta Asiako herrialdeak moteldu ziren.

Azaleratzen ari diren Asiako ekonomia nagusien artean, Txinako BPGaren hazkundera zertxobait gutxitu zen, ekonomia hori moteltzen ari dela baieztatuz. Zehazkiago adierazita, herrialde hartako BPGa %6,5 handitu zen. Tasa hori nabarmena da oraindik, baina aurreko emaitza baino bi hamarren txikiagoa da eta 2009ko lehen hiruhilekotik inoiz jaso den txikiena. AEBek arantzel altuagoak ezarri baino lehen, Txinako enpresa esportatzaileek bidalketak aurreratu zituzten eta horrek esportazioei bultzada sendoa eman zien, barne eskariaren ahultasuna konpentsatuz. Izan ere, txinatar agintariak ahalegin handiak egin dituzten arren, barne eskariak oraindik ez du bereganatu trakzio papera. Etorkizunari begira, neurri protekzionistak gogortuko diren heinean moteltzea areagotuko dela aurreikusten da. Egoera horren aurrean, Txinako gobernuak kanpo merkataritzari ezarri dion mugak leuntzea pentsatzen ari da, salbuespena estatubatuar esportazioak izango direlarik. Horrek bertako ekonomia munduko gainontzeko herrialdeetara irekitzea ekarriko luke, salmenten egonkortasuna ziurtatuz. Beste aldetik, India %7,2 hazi zen, kontsumoaren eta inbertsioaren sendotasunak bultzatuta. Inportazioek gorakada handia izan zuten, ordurako bikaina zen tasa bikoiztuz (%25,6). Horren ondorioz, kanpo eskariaren ekarpen negatiboa handitu zen eta herrialdearen hazkundera aurreko hiruhilekoarena baino sei hamarren txikiagoa izan zen.

Amerika Latinoan, bertako bi ekonomia nagusiek hazkunde aipagarria izan zuten. Brasilek gora egin zuen, aurreko hiruhilekoaren moteltzearen ondoren, maiatzean pairatu zuen kamioilarien grebak kaltetuta. Hain zuzen ere, BPGa %1,3ra bizkortu zen eta atzean utzi zuen 2017ko maiatzean hasi zuen motelaldia. Barne eskariak hazkundera gorarazi zuen, inbertsioaren (%7,7) eta, neurri txikiagoan, kontsumo pribatuaren (%1,3) igoerari esker, kanpo eskariaren kenketa konpentsatu baitzuen. Hoberantz egin duen arren eta kontsumitzailearen konfiantzak balio minimoak atzean utzi dituen arren, herrialde hartako BPGak oraindik batez besteko historikoaren azpian jarraitzen du. Horri erantsi behar zaizkio ziurgabetasun politikoa eta finantza merkatuetako zurrunbiloak. Aurreko guztiak pentsarazten du brasildar ekonomiaren susperraldia astiro gauzatuko dela. Mexiko, berriz, %2,6 hazi zen, bigarren hiruhilekoan baino puntu bat gehiago, eta ziurgabetasun politikoa eta komertzialak aurreko hiruhilekoetan eragin zuten ahultasuna gainditu du.

Oro har, ELGEko herrialdeak %2,4 hazi ziren, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago, duela urtebete hasi zen moteltzea baieztatuz. Herrialde aurreratuen artean, AEBek ezustea eman zuten berriro, bertako BPGak gehikuntza garrantzitsua lortuta. Hain zuzen ere,

herrialde hartako ekonomia jarduera %3,0 sendoa hazi zen, 2015eko bigarren laurdenetik izan duen emaitzarik onena baita. Barne eskariaren sendotasunak eta lan merkatuaren egonkortasunak ahalbidetu dute hori. Kanpo arloari dagokionez, dolarraren sendotasunak kalte egin zien esportazioei. Aitzitik, inbertsioaren une gozoak inportazioak areagotu zituen. Aurrekoaren ondorioz, kanpo eskariak bi hamarren kendu zizkion jarduerari. Neurri handi batean, lan merkatuak eragin du bizitasun hori, zeren eta AEBek etengabe sortu dutelako enplegua azken zortzi urtekoan. Zehazkiago, langabezia tasak urrian %3,7an jarraitu zuen, 1969ko abendutik izan duen mailarik apalena baita.

Aitzitik, Japoniako ekonomiak ezin izan zuen finkatu aurreko hiruhilekoan hasi zuen goranzko norabidea eta ekonomia jarduera %0,4ra moteldu zuen, 2015eko hasieratik izan duen tasarik txikiena baita. Hala kontsumo pribatuak nola publikoak aurreko emaitzaren aldean hobera egin zuten arren, oraindik bilakaera motela erakusten dute. Horri erantsi behar zaio inbertsioaren hazkunde txikiagoa eta esportazioen jaitsiera herrialdearen emaitza hutsala ulertzeko. Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasa %2,4an kokatu zen urrian, iraileko datua baino hamarren bat gorago, baina maiatzeko %2,2tik hurbil, bost bosturtekoan jaso den mailarik txikiena baita hori. Azkenik, prezioak hazi egin ziren hogeita bosgarren hilekoz jarraian. Urrian, KPIa %1,4 hazi zen, 2015eko apiriletik jaso duen tasarik gorena baita.

Europar Batasunean, ekonomia jarduerak gora egin zuen berriro, baina 2017ko erritmoaren oso azpitik. Izan ere, BPGa %1,8 hazi zen 2018ko hirugarren hiruhilekoan, urtebete bat lehenago jaso zuena baino puntu bat gutxiago. Moteltzearen arrazoia, neurri handi batean, kanpo eskariaren ahultzea da, zeren eta hala kontsumoak nola inbertsioak tonuari eutsi baitzioten. Azken hiruhilekoetan, Euroguneak lortua zuen Europar Batasuneko emaitzen gainetik egotea. Hala ere, hirugarren hiruhilekoan sei hamarren galdu zituen aurreko hiruhilekoaren aldean eta %1,6an utzi zuen BPGaren hazkunde tasa. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, erritmo galera 1,2 puntura iristen da.

Zehatz-mehatz adierazita, Alemaniak nabaritu zuen gehien moteltzea, bertako jarduera tasa %1,2ra murriztuta. Bai makinerian eta ekipamenduan eginiko inbertsioa bai eraikuntzan eginikoa aurreko hiruhilekoan baino gehiago hazi baziren ere, familien gastua gutxitu zen. Halaber, ekoizpena etenda geratu zen denbora batez isurien araudi berriaren ondorioz, eta merkataritzako tentsioek esportazioak ahuldu zituzten. Aurreko guztiak zazpi hamarrenetan beheratu zuen jarduera tasa aurreko hiruhilekoaren aldean. Frantziak, berriz, bi hamarren bakarrik galdu zituen aurreko datuaren aldean, baina, Alemanian ez bezala, barne eskariaren osagai guztiek tasak jaitsi zituzten. Are gehiago, inportazioak murriztu ziren, lehenengo aldiz 2012ko urtarrietik. Italia bi ekonomia horien artean kokatu zen eta bertako BPGak puntu erdi bat galdu zuen. Kasu horretan, barne zein kanpo eskarien ahultasunak eragin zuen hazkunde txikiagoa.

Joera horretatik urrun kokatu ziren Espainia eta Erresuma Batua. Espainiar ekonomiaren kasuan, hala kontsumoak nola, bereziki, kapital eraketa gordinak beren hazkunde tasak gutxitu zituzten. Hala eta guztiz ere, bi agregatu horien tasak oraindik maila garrantzitsutan daude. Barne eskariak hiru hamarretan gutxitu zuen BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. Aitzitik, esportazioen eta, are gehiago, inportazioen moteltzeak kanpo saldoaren ekarpen negatiboa murriztu zuen eta BPGaren gehikuntza tasak %2,5ean jarraitzea ahalbidetu zuen. Azkenik, ekonomia britainiarrek, aurreikusitakoaren kontra, %1,5 haztea lortu zuen, hots, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago. Kontsumo pribatuaren bultzadak, ziurrena udako berotasun ezohikoak bultzatuta, eta inbertsioaren susperraldiak, zenbaki gorriak atzean utzi baitzituen, azaltzen dute hobekuntza hori.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2017	2017			2018		
		II	III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	2,4	2,3	2,4	2,7	2,9	2,2	2,1
- Familien gastua	2,5	2,5	2,6	2,7	3,1	2,3	2,1
- Administrazioaren gastua	1,9	1,7	2,0	2,6	2,4	1,9	2,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,4	3,9	6,7	6,2	4,3	7,8	6,6
Nazio eskaria (*)	2,9	2,6	3,2	3,3	3,1	3,3	3,0
Esportazioak	5,2	5,4	5,4	4,2	3,4	2,3	0,4
Inportazioak	5,6	4,4	7,0	5,4	4,7	5,2	2,0
BPG (m.p.)	3,0	3,1	2,9	3,1	2,8	2,5	2,5
Nekazaritza eta arrantza	-0,9	-2,5	-0,8	0,4	2,2	3,2	-0,6
Industria	4,4	4,2	4,0	4,9	2,6	2,5	1,3
Eraikuntza	6,2	6,5	6,0	6,8	7,4	7,1	7,2
Zerbitzuak	2,5	2,6	2,5	2,5	2,5	2,3	2,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,3	4,2	3,1	2,7	2,9	1,0	1,3

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena.

Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa %6,7an kokatu zen urrian, gaur arte inoiz jaso den emaitzarik apalena baita. Azken urtebetean, langabezia herrialde kide guztietan jaitsi da. Espainiako langabeziaren bilakaera azpimarragarrienetako bat da, %16,6tik %14,8ra igaro delako.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2018ko lehen hiruhilekoan zehar, EAEko ekonomiak jarraipena eman zion aurreko epealdian hasi zuen moteltzeari. Zehatz-mehatz azalduta, BPGaren gehikuntza %2,6an finkatuta geratu zen, aurreko datua baino hiru hamarren gutxiago eta urte hasieran lortutako emaitza baino puntu erdi bat beherago. Erritmo galera hori iragarrita zegoen Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren taula makroekonomikoan, zeinetatik hamarren bakar bat desbideratu baita. Halaber, apaltzeko prozesu hori ez da EAEko ekonomian bakarrik gertatu, ingurunekeo ekonomia gehienetan ere, eta bizitasun handiagoz, hauteman delako. Esate baterako, Europar Batasunak (%1,8) zortzi hamarrenetan gutxitu zuen bere gehikuntza tasa, Euroguneak (%1,6) oro har puntu bat eta hamarren bat galdu zituen, Alemaniak (%1,2) puntu bat eta sei hamarren eta Frantziak (%1,4) puntu bat eta lau hamarren.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	3,3	2,9	3,0	3,0	3,1	2,9	2,6
Nekazaritza eta arrantza	1,0	6,8	9,6	-2,7	-3,0	0,8	-4,6
Industria eta energia	4,2	3,1	3,0	3,5	3,7	3,1	1,9
- Manufakturen industria	4,3	3,2	2,9	3,4	3,9	3,1	2,0
Eraikuntza	0,2	3,8	4,7	4,0	2,7	4,1	4,8
Zerbitzuak	2,8	2,7	2,8	2,7	3,1	2,8	2,7
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,6	4,0	4,1	3,6	3,1	2,7	2,5
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,4	2,2	2,2	2,4	2,9	2,3	2,1
- Gainontzeko zerbitzuak	2,5	2,2	2,2	2,3	3,1	3,0	3,2
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	3,0	2,9	3,1	2,9	2,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	2,8	2,7	3,3	3,1	2,8	2,6

Iturria: Eustat.

Moteltze horren jatorria testuinguru ekonomiko apalago batean datza, non hainbat faktorek ziurgabetasuneko irudi kezagarria eragin baitute. Haien artean, nabarmendu behar dira Brexitaren negoziazioak, AEBen protekzionismoak nazioarteko merkataritzara ekarri dituen tentsioak, automobilgintza sektorean isurien araudi berriak izan dituen ondorioak eta Italiako

aurrekontuaz piztu diren zalantzak. Azken hau izan ezik, gainontzeko guztiek eragin berezia dute industria alorrean, kanpoko lehiari irekien dagoena baita. Zehatz-mehatz, jarduera horren balio erantsia 2017an eta 2018ko lehen erdian %3,0 baino gehiago hazi zen, baina aurtengo hirugarren hiruhilekoan %1,9 baino ez zen gehitu; analisia manufakturen jardueretara mugatzen bada, hazkundea %2,0 izan zen.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
Industria							
Industria produkzioaren indizea	2,3	3,0	3,0	3,7	3,6	2,3	0,5
Negozio zifren indizea	0,4	9,4	10,2	9,5	7,0	11,3	7,3
Eskarien sarrera	2,5	6,5	11,2	11,6	7,7	5,6	1,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,7	1,8	1,6	1,7	1,9	1,9	1,9
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	2,1	5,9	2,0	6,4	6,7	13,2	13,9
Etxebizitza berrietarako bisatuak	-13,4	26,7	103,1	25,9	-5,9	88,5	16,7
Etxebizitzaren salerosketak	12,2	11,4	19,0	10,6	9,4	5,1	10,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,0	1,8	1,6	2,0	2,7	3,4	4,0
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	7,6	9,2	5,4	14,2	11,7	9,6	10,3
Hoteletan igarotako gaualdiak	8,9	2,6	-0,9	2,7	9,3	5,7	5,9
Negozio zifren indizea	3,7	4,4	2,9	5,2	7,5	7,8	9,0
Zerbitzuen koiuntura indizea	2,9	1,8	1,8	2,0	2,7	2,1	1,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,2	2,2	2,2	2,2	2,4	2,1	1,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriak une hauetan bizi dituen zailtasunak jasota geratu dira sektorearen koiunturako datuetan. Alde batetik, eskari berrien sarrera nabarmen moteldu da, 2017ko bigarren erdian jaso ziren bi zenbakiko tasetatik ezagutu den azken epealdiko %1,9ra arte. Beste aldetik, industriaren ekoizpena ia-ia bere horretan geratu zen (%0,5) aurtengo hirugarren hiruhilekoan, lehen seihileko dinamikoaren ondoren. Bai irailean bai urrian IPIak %2,0aren ingurura arte hobera egin zuen arren, pentsatzekoa da automobilgintza diesel motorren baldintza berrietara egokitzeko beharra oraindik IPIaren emaitzetan hautemango dela. Zentzu horretan, Mercedes enpresak laugarren hiruhilekoan hainbat egunetan bere jarduera gelditzea aurreikusten du.

Ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera, ekoizpen erritmoaren apaltzea bereziki garrantzitsua izan da ekipamendurako eta bitarteko ondasunetan. Lehen kasuan, aurtengo lehen erdian jaso ziren gehikuntza bizen ondoren, udako hilekoetan jaitsierak jaso ziren, nahiz eta irailean eta urrian emaitza hobekak eskuratu ziren. Beste aldetik, bitarteko ondasunek ez dute hobekuntzarik erakusten eta beren ekoizpena ez da hazten. Energiaren taldea tasa negatibotan sartu zen udaberrian eta egoera hori udazkenara arte luzatu du. Albiste onak kontsumorako ondasunen ekoizpenetik iristen dira, udako beherakadak atzean utzi dituztelako eta urte arteko gehikuntza tasa sendoak jaso dituztelako.

Eraikuntzak hedatze handiko une bat bizi du, beraren balio erantsia %4,8 areagotzea ekarri duena, 2017ko amaieratik inoiz jaso duen tasarik gorena baita. Eskuragarri dagoen koiunturako informazioak adierazten du etxegintza oso bizkor suspertzen ari dela. Hala ere, gogoratu behar da sektorea historikoki oso apala den maila batetik abiatu dela. Etxebizitzen salmenta %10,3 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, 2016an eta 2017an batez beste eskuratu ziren emaitzekin bat eginez. Orobat, bizitegi berriak eraikitzeak bisatuak %16,7 hazi ziren. Beste aldetik, eraikuntzaren koiuntura indizeak %3,2an kokatzen du obra zibilaren gehikuntza tasa.

Industriaren moteltzetik eta eraikuntzaren bizkortzetik aldentuta, zerbitzuek joera egonkorrena erakutsi zuten hirugarren hiruhilekoan. Hain zuzen ere, sektore horren balio erantsia %2,7 areagotu zen, hots, aurreko epealdian baino hamarren bakar bat gutxiago eta 2017ko batez besteko bera. Halere, egonkortasun hori ez da gauzatu sektorea osatzen duten hiru jarduera talde handietan, zeren eta merkataritza, ostalaritza eta garraioa multzoak (%2,5) zein administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak taldeak (%2,1) balio erantsia moteltzeko joera garbia erakutsi baitute. Aitzitik, gainontzeko zerbitzuek (%3,2) zertxobait hobetu zituzten aurreko emaitzak.

Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak bide ematen du sektorea osatzen duten jarduera nagusien bilakaera aztertzeko. Informazio horrek iradokitzen du merkataritzak, hala handizkakoak nola txikizkakoak, bizitasun apur bat galdu duela hirugarren hiruhilekoan, familien kontsumoa galgatu den heinean. Orobat, ostalaritzan ere hazkundera moteldu dela hautematen da, nahiz eta oraindik tasa garrantzitsutan (%2,5) kokatuta dagoen. Aitzitik, automobilen salmentak oraindik aldakuntza tasa altuak (%4,1) jaso ditu eta bai garraioak (%3,4) bai jarduera administratiboak eta zerbitzu laguntzaileak biltzen dituenak (%4,7) zertxobait areagotu zituzten ordurako biziak ziren gehikuntza tasak.


INEk zenbatesten duen zerbitzuen negozio zifrak kontu ekonomikoetatik eratortzen den baikortasuna berresten du, urte arteko gehikuntza tasa %9,0an kokatu delako, aurreko balioak berak gaituz. Azkenik, turismoaren estatistikek berriro eskaini dituzte datu oso onak, hotel

establezimenduetan igarotako gaualdiak %5,9 handitu baitira, aurreko datutik oso hurbil, eta hegazkinez bidaiatu duten pertsonen kopurua %10,3 areagotu baita, 2016an zein 2017an lortutako tasak hobetuz.


Enplegu sorrerak sendotasun nabarmena erakusten du oraindik. Hirugarren hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %2,0 handitu zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago eta 2016an zein 2017an eskuratutako batez besteko balioetatik oso hurbil. Tasa horrek esan nahi du azken urtebetean ekonomiak 18.500 lanpostu garbi inguru sortu dituela. Horri esker, ia 960.000 lanpostu daude EAEko ekonomian. Hala eta guztiz ere, litekeena da BPGaren moteltzeak etorkizun hurbilean lan merkatuaren bizitasuna apaltzea, kontuan hartuta enpleguaren bilakaerak BPGaren aldakuntzen aurrean atzerapenez erantzuten duela.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Sortutako lanpostu gehienak zerbitzuetakoak izan ziren, 13.000 enplegu garbi lortu zituztelako, 2017ko epealdi berean zeudenen aldean %1,9ko gehikuntza bat delarik. Industriak eskuratutako tasa (%1,8) antzekoa izan zen eta ia ez zen ezer aldatu aurreko balioen aldean. Sektore horrek 3.700 enplegu garbi sortu zituen azken urtebetean. Azkenik, eraikuntzak berriro jaso zuen urte arteko tasarik altuena (%3,8), baina gaur egun duen tamaina txikiak 2.000 lanpostuetara mugatzen du sortutako enplegua.

Laugarren hiruhilekorako dagoeneko eskuragarri dagoen informazioak adierazten du enplegua hirugarren hiruhilekorako deskribatu den erritmoaren antzekoan hazten ari dela. Izan ere, Gizarte Segurantzako afiliazioa, batez beste, %2,1 hazi zen urrian eta azaroan, urte arteko tasan, aurreko datua (%1,8) 2017 eta 2018 urteetako mahats bilketaren egutegia ezberdina izateak baldintzatuta baitzegoen. Oro har, estatistika horrek seinalatzen du eraikuntza oraindik hobetzen ari dela urteko azken hilekoetan, bi hileko horietan %4,0tik gorako tasak lortuta. Aitzitik, industria hasi da nabaritzen ekoizpenaren apaltzea eta lau hilekoz jarraian gutxitu du bere gehikuntza tasa, azaroan jasotako %1,3 arte. Zerbitzuetan, indarguneak merkaturatzen ez diren zerbitzuetan daude, administrazio publikoak (%2,0), hezkuntzak (%3,7) eta osasunak (%4,0) gehikuntza esanguratsuak biltzen dituztelarik. Orobat, bizitasuna hauteman da lanbide jardueretan (%3,3), artistikoetan (%4,1) eta informazioa eta komunikazioetan (%4,1), besteak beste. Aitzitik, merkataritzak (%0,0) eta finantza alorreko jarduerak (%-0,1) bilakaera lauko ibilbidea eskaintzen dute.

Enplegu sorrera garrantzitsuak eta biztanleria aktiboaren egonkortasunak langabezia berriro gutxitzea ahalbidetu dute. Hain zuzen ere, langabezia tasa hirugarren hiruhilekoan %9,5ean kokatu zen, Eusko Jauriaritzak legegintzaldi honetarako ezarri zuen helburuaren azpian. Hala ere, hemendik aurrera langabezia tasaren jaitsiera horren bizia ez dela izango aurreikusten da. Alde batetik, enpleguaren dinamismoa lanpostu baten eskatzaile berriak erakartzen ari da. Beste aldetik, langabezia gutxitu denez, eskainiko diren bakanteetara aurkeztuko diren pertsonak gero eta gutxiago izango dira eta, horren ondorioz, eskatzen den perfila aurkitzeko aukerak ere txikiagoak izango dira.

Barne eta kanpo eskaria

Bigarren hiruhilekoan gertatu zenetik aldentuta, hirugarrenean EAEko ekonomiak bizi zuen moteltze guztiaren jatorria barne eskariaren bultzada txikiagoan zetzan, kanpo saldoak epealdian zehar portaera neutroa erakutsi zuen bitartean. Zehatz-mehatz adierazita, barne eskaria %2,5 handitu zen urte arteko tasan, hots, 2017an eta 2018ko lehen erdian lortutakoa, eta hazkundeari egonkortasuna eman ziona, baino puntu erdi bat gutxiago. Tasa horrek 2,6 puntuko ekarpena egin zion BPGaren gehikuntzari. Beste aldetik, hala esportazioek nola inportazioek beren aldakuntza tasak moteldu zituzten, hurrenez hurren, %2,2ra eta %2,1era, bakoitzak 1,4 puntuko ekarpena egin zuela, baina zeinu kontrajarrikoa. Beraz, kanpo saldoak ez zion inolako ekarpenik egin BPGari, aurreko epealdian bi hamarren kendu bazizkion ere. Kanpo saldoaren hobekuntza erlatibo hori, ordea, ez da nahiko izan barne eskariaren moteltzea konpentsatzeko.

Barne eskariaren moteltzea beraren bi osagai nagusietan hauteman zen. Alde batetik, azken kontsumoan eginiko gastua bigarren hiruhilekoan %2,5 hazi zen bitartean hirugarrenean %2,0 gehitu zen. Beste aldetik, kapital eraketa gordinak %4,0ko gehikuntza tasa jaso zuen, aurreko hiruhilekoko %4,8aren ondoren. Azken kasu horretan, badirudi datu ezohikoa bigarren hiruhilekoko izan zela, eta hirugarrenean aurreko epealdietan lortu zen erritmora itzuli zela. Hazkunde erritmo hori oso sendoa da eta lehiakortasunaren hobekuntzan lagunduko du etorkizunean, ekoizpenerako inbertsioan azken kontsumoan baino gehiago oinarritzen den hazkunde eredu batean.

Hirugarren hiruhilekoaren ezaugarrietako bat azken kontsumoaren hazkundearen moteltzea izan da, hala kontsumo pribatuarena nola kontsumo publikoarena. Hain zuzen ere, kontsumo pribatua %2,3 hazi zen urte arteko tasan, azken lau urteko zenbakirik txikiena baita. Familien kontsumoak izan duen apaltzeak pentsarazten du krisian zehar geroratu ziren erosketa haietako asko dagoeneko eginak direla, eta une hauetan kontsumoaren bilakaera lotuago dagoela gastuaren ahalmenari. Ahalmen hori, batez ere, enplegu sorreran eta soldaten igoeran oinarritzen da. Kontuan hartuta soldata errealak ez direla hazten, enplegu sorrerak markatuko du, neurri handi batean, kontsumoaren etorkizuneko bilakaera. Beste aldetik, kontsumo publikoak %1,2ra murriztu zuen bere urte arteko gehikuntza tasa. Hala eta guztiz ere, aldagai horrek gorabehera handiak izaten ditu denboran zehar, administrazioek egiten dituzten gastuen egutegiaren arabera.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
BPG errealak	3,3	2,9	3,0	3,0	3,1	2,9	2,6
Gastua azken kontsumoan	3,0	2,9	2,9	2,8	2,8	2,5	2,0
- Familien gastua kontsumoan	3,3	3,0	3,0	2,9	2,9	2,6	2,3
- Adminis. gastua kontsumoan	1,8	2,4	2,5	2,7	2,6	2,0	1,2
Kapital eraketa gordina	5,5	3,3	2,8	3,7	3,7	4,8	4,0
- Ekipamendu ondasunak	8,6	3,2	1,9	3,4	4,8	6,1	2,9
- Gainontzeko inbertsioa	3,8	3,4	3,3	3,9	3,0	4,0	4,6
Barne eskaria	3,6	3,0	2,9	3,0	3,0	3,0	2,5
Esportazioak	1,8	4,7	5,6	6,8	6,7	2,9	2,2
Inportazioak	2,2	4,8	5,4	6,9	6,4	3,1	2,1

Iturria: Eustat.

Kapital eraketa gordinari dagokionez, gainontzeko inbertsioa lortzen ari den bultzada nabarmendu behar da, urte arteko gehikuntza %4,6an kokatuta, 2016an eta 2017an batez beste lortu zituen tasak nabarmen gaituz. Eraikuntzaren susperraldiak azaltzen du osagai horren bilakaera ona. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak, berriz, %2,9ko igoera izan zuen, oraindik oso esanguratsua dena, baina aurreko hiruhilekoko %6,1etik urrun dagoena.

Eskuragarri dagoen koiunturako informazioak baieztatzen du kontu ekonomikoek ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioan zenbatetsi duten apaltzea. Hain zuzen ere, ondasun horien inportazioa %4,4 areagotu zen hirugarren hiruhilekokoan, aurreko epealdian lortutako datu bikainaren erdia baino gutxiago dena, baina 2017ko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa ere dena. Orobat, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak oso gehikuntza tasa altua jaso zuen berriro (%25,9), baina datua puztuta dago diesel motorren isurien araudi berria indarrean sartu baino lehen erosketa batzuk aurreratu zirelako, ondorengo hilekoetan konpentsatuko dena, urrian bertan gertatu denez. Ekipo ondasunen ekoizpenak, bertoko inbertsioari hain lotuta ez egon arren, nagusiki esportaziora bideratzen baita, %1,2ra leundu zuen tasa. Beste aldetik, eraikuntzan eginiko inbertsioarekin lotura duten adierazleek irudi kontrajarra erakutsi zuten. Izan ere, etxebizitza berrietarako bisatuak %16,7 hazi ziren, baina lizitazio ofiziala, gorabehera handiak izaten baititu, %40,5 jaitsi zen.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	1,8	2,1	3,3	1,4	2,6	2,1	-0,9
Txikizkako merkataritza indizea	1,7	0,8	2,6	0,1	0,8	-0,1	-0,9
Kontsumo ondasunen ekoizpena	0,2	2,6	1,1	2,2	-0,3	-1,6	2,1
Kontsumo ondasunen inportazioa	-0,5	4,2	8,8	7,1	-1,7	-4,7	-7,1
Turismoen matrikulazioa	5,3	7,3	5,2	13,7	12,8	8,6	10,8
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	8,7	-0,1	-3,3	2,8	5,3	7,0	1,2
Ekipo ondasunen inportazioa	13,4	5,5	9,2	3,1	6,3	10,6	4,4
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	3,6	7,8	11,9	15,9	7,8	38,3	25,9
Etxebizitza berrientzako bisatuak	-13,4	26,7	103,1	25,9	-5,9	88,5	16,7
Lizitazio ofiziala	-18,0	75,1	35,1	252,4	52,5	1,0	-40,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Sustapen Ministerio, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Lehenago ere adierazi denez, kanpo saldoak posizio neutroa izan zuen 2018ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan bi hamarren kendu eta gero. Oro har, atzerriarekin eginiko merkataritza galgatu da, hala EAEko ekonomiarena nola inguruneko herrialdeena, neurri handi batean AEBen eta beste herrialde batzuen arteko merkataritza tentsioek sortutako ziurgabetasunaren ondorioz. EAERI dagokionez, esportazio errealek %2,2ra arte moteldu zuten hazkunde erritmoa eta inportazioak %2,1 handitu ziren, bi kasuetan aurreko balioen oso azpitik daudela. Aldagai bakoitzak BPGari egin zion ekarpena 1,4 puntukoa izan zen, baina zeinu kontrajarrikoa.

Kanpo merkataritzako analisia atzerrian saldutako ondasunetara (zerbitzurik gabe) mugatzen bada, aldeko irudia ateratzen da oraindik. Izan ere, merkatu horretara bideratutako esportazioak nabarmen hazi ziren (%6,9) hiruhilekoan, aurreko epealdian eskuratutakoa baino zertxobait bakarrik txikiagoa. Horri esker, salmenten balioa 6.167 milioi eurora iritsi zen. Bolumen hori oso garrantzitsua da eta ahalbidetu du aurtengo lehen bederatzi hilekoetan beste errekor bat lortzea atzerrian esportatutako diru kopuruetan. Gorakadaren zati bat esportazioen garestitzearen ondorioa da.

Prezioen eragina esanguratsuagoa da erregai mineralen esportazioak aztertzen direnean, hirugarren hiruhilekoan produktu horien salmentaren balioa %12,2ko igoera azpimarragarria handitu baitzen, nahiz eta bidalitako kopurua 2017ko epealdi berekoa baino %10,3 txikiagoa izan. Duela gutxi Brent motako upelaren salneurria urriko 82 dolarretatik (71 euro) azaroko 64 dolarretara (56 euro) merkatu den arren, hirugarren hiruhilekoaren batez besteko balioa 75 dolarretan (65 euro) kokatu zen, 2017ko hiruhileko berean balio zuen 53 dollarrak (45 euro) baino %43 garestiagoa.

Energiaz bestelako esportazioak %6,4 hazi ziren balioan, aurreko hiruhilekoan jasotako %6,8tik oso hurbil. Une horretako ezuste negatiboa garraio materialaren salmentak eman zuen, esportazioen egituran pisu gehien daukan osagaia baita, urte hasieran bi zenbakiko gehikuntzak lortzetik hirugarren hiruhilekoan %3,9ko beherakada jasotzera igaro zelako. Ibilgailuen isurien Europako araudi berriak ekarri dituen zalantzek automobilen eta beraien osagaien salmenten murrizketa ekarri dute berekin, etorkizunean gaindituko den arren. Esportazioen beste bi osagai nagusiek gehikuntza tasa esanguratsuak eskuratu zituzten. Alde batetik, metal arruntak eta beren manufaktura %6,2 hobetu zituzten salmentak, eta makinak eta tresnak atalak %8,1 handitu zuen bere esportazioen balioa. Egituran pisu nabarmen txikiago batekin, plastikoek eta kautxuak %21,6ko gehikuntza jaso zuten urte arteko tasan, nekazaritzako produktuek atzerriko salmentak zertxobait (%-3,1) gutxitu zuten bitartean.

Aurreko hiruhilekoetan ez bezala, garapen bidean dauden herrialdeetan saldutakoa ekonomia aurreratuetara esportatutakoa baino gehiago hazi zen. Zehazkiago adierazita, lehenengoetan %10,0 gehiago saldu zen, hainbat hiruhilekotan lortu den emaitzarik onena baita, eta azkenengoetan %6,2 gehiago, aurreko datua baino apur bat gutxiago. Horren ondorioz, eremu bakoitzari bidalitakoaren portzentajea zertxobait aldatu da eta gaur egun ELGEko herrialdeek atzerrira doazen EAEko salmenten %81 bereganatu dute, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gutxiago. Aldaketa horren zati bat ibilgailuen portaera ezberdinean datza, azaleratzen ari diren herrialdeetan salmenta %17,6 handitu zelako, garatuetan %2,1 murriztu zen bitartean.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2016	2017	2017		2018		
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	-1,6	10,5	11,1	10,9	6,1	6,9	6.166.548
ELGE	1,0	10,6	12,3	12,0	7,1	6,2	5.000.821
Europar Batasuna	0,7	9,4	11,9	8,5	7,8	8,2	4.046.808
Frantzia	4,4	12,4	16,9	12,4	6,0	-4,1	903.426
Alemania	-1,4	3,1	7,7	5,2	7,0	5,3	903.571
Erresuma Batua	-9,4	16,6	9,9	16,0	1,8	20,8	449.978
Italia	-9,0	2,1	7,3	12,3	21,7	15,7	293.459
AEB	-10,5	18,5	16,9	47,1	17,7	-0,8	486.435
ELGETik kanpokoak	-11,8	9,9	6,2	5,6	1,8	10,0	1.165.727

Iturria: Eustat.

Herrialde garatuen artean, oso bestelakoa izan da europar merkatuan lortu den bultzada, moteltzeko joera garbia bizi den arren, eta estatubatuar merkatu dinamikoan jaso den geldotasuna. Azken herrialde horretan, esportazioan pisua daukaten talde guztiek salmentak gutxitu zituzten. Esate baterako, erregai mineralen esportazioa, EAEko salmenta guztietatik herena biltzen baitute, %3,3 jaitsi zuten balioa, produktu hori garestitu zen arren. Beste aldetik, galdaketaren manufakturrek, %10eko pisua baitute, %4,3 gutxitu zuten salmenta, urtebete eta erdiz aparteko gehikuntzak lortu eta gero. AEBek Europako altzairuari egin zizkioten mehatxuek beharbada eragina izan zuten herrialde horretan saldutako ondasunen egutegian. Azkenik, makineria mota guztiek bilakaera kontrajarriak erakutsi zituzten, elektrikoak tasa negatibotan eta mekanikoak positibotan (%16,8) kokatu zirelako.

Europar Batasunera bidalitako esportazioek %8,0aren inguruko tasa egonkorrari eutsi diote urte osoan zehar. Oro har, eremu horretara bideratzen diren produktu multzo garrantzitsu guztiek bilakaera ona erakutsi dute, salbuespen bakarra ibilgailu automobilak direla, beren salmenta %4,4 jaitsi zelako. Isurien araudi berriak eragin berezia izan du diesel motorretan eta kalte egin die automobilgintzako salerosketetan. Aitzitik, galdaketari lotutako produktuen esportazioak bultzada azpimarragarria izan zuen epealdi horretan. Orobat, makineriak, kautxuak eta erregai mineralek ere, esportazioen egituran pisua daukaten gainontzeko taldeak baitira, emaitza onak eskuratu zituzten.

EAEko enpresek Alemanian %4,1 gutxiago saldu zuten hirugarren hiruhilekoan, automobilgintzaren zailtasunengatik. Kontuan hartu behar da ekonomia horretan saltzen diren ondasun guztietatik ia erdia sektore horrekin daukatela lotura eta salmenta horiek %11,9 gutxitu zirela. Pisua daukaten beste produktu batzuek ere salmentak murriztu zituzten, hala nola makineria mekanikoa biltzen duena (%-4,3) eta erremintak eta tresnak (%-22,4). Bilakaera hobea erakutsi zuten bai burdina eta altzairuaren galdaketak (%26,4) bai galdaketaren manufakturrek (%17,1) zein kautxuak (%23,2).

Alemaniak eta Frantziak, biek, 903 milioi euro balio zuten EAEko produktuak erosi zituzten hirugarren hiruhilekoan. Frantzian saldutakoa ez da horrenbeste egoten ibilgailu automobilen pean eta, horren ondorioz, merkatu horretako jaitziera (%-7,2) beste produktu batzuek konpentsatu zuten, guztira %5,3ko gehikuntza lortu arte. Produktu multzo horien artean, azpimarratu behar dira burdina eta altzairu galdaketa, salmentak %37,8 handitu zituztelako eta bi zenbakiko laugarren hiruhilekoa kateatu duelako. Makineria mekanikoak ere gorakada esanguratsua (%22,8) izan zuen, aurreko emaitza onei jarraipena eman diona.

Brexitak sortu duen ziurgabetasunak eta automobilgintzaren arazoek ez diete kalterik egin Erresuma Batura bidalitako esportazioei, aurreko urtearen aldean %20,8 hobetu zirelako. Ibilgailu automobilen atalak salmenta guztien herena biltzen du eta %9,8ko gehikuntza lortu zuen, aurreko hiruhilekoan eskuratutakoa baino zertxobait gehiago. Merkatu horretan pisua daukaten beste talde batzuek ere oso aldakuntza tasa garrantzitsuak izan zituzten, hala nola makineria mekanikoak (%25,0) eta kautxua eta bere manufakturrek (%20,2). Orobat, burdina eta altzairuaren galdaketa ere (%11,2) azpimarratu behar da.

Italian lortutako emaitzak ere onak izan ziren, herrialdeak geldotasuneko irudia eskaintzen duen arren eta barne zein kanpo tentsioak bizi dituen arren. Izan ere, herrialde horretara esportatutakoa %15,7 hazi zen. Antzeko pisua daukaten lau taldek biltzen dituzte salmenta guztien %60a eta laurak eskuratu zituzten gehikuntza tasa esanguratsuak epealdi horretan. Alde batetik, ibilgailu automobilen salmenta %14,5 hazi zen; beste aldetik, kautxuaren

salmenta %29,9 handitu zen, burdina eta altzairuaren galdaketarena %20,1 eta makineria mekanikarena, azkenik, %30,7.

Aipatua izan denez, hirugarren hiruhilekoan garapen bidean dauden herrialdeetan eginiko salmentak gehiago hazi ziren ekonomia aurreratuetan eginikoak baino, eta %10,0 handitu ziren, 1.166 milioi eurora iritsiz. Automobilaren salmentak %17,6ko hobekuntza izan zuen, baina makineriaren esportazioa zertxobait jaitsi zen. Esportazioetan pisua daukaten beste bi taldeek ere emaitza onak jaso zituzten. Alde batetik, erregai mineralen salmenta %20,1 hazi zen eta eremu horretara esportatu ziren galdaketaren manufakturen balioa %26,9 areagotu zen epealdi horretan.

Talde horretako helmuga behinena Txina da eta herrialde horretan saldutakoa berriro gutxitu zen urte arteko tasan, oraingoan %5,0. Herrialde horretara bidaltzen den produktu nagusia makineria da, salmenta guztien erdia baino zertxobait gehiago biltzen baitu, eta beherakada esanguratsuak izan zituen, galdaketaren manufakturen bilakaera onak (%4,1) konpentsatu ez zituena. Brasil ere ez zen merkatu ona izan hirugarren hiruhilekoan eta herrialdera bidalitako esportazioak apur bat gutxitu ziren (%-1,1), erregaien eta makineriaren jaitsieraren ondorioz. Beherakada horren zati handi bat industria aeronautikoaren bilakaera onak (%14,4) eta produktu kimikoen salmentak konpentsatu zuten. Azken honek EAEko enpresek Brasilen saltzen duten guztiaren %15 bereganatu du. Garrantziari dagokionez, Brasiletik oso hurbil kokatu da Iran, EAEn egiten dituen erosketak laukoztu dituelako. Batez ere, galdaketaren manufakturak eta makineria erosten dituzte. Hala ere, AEBek Irani ezarri dioten zigorrek eragina izango dute herrialde horretara esportatuko diren kopuruetan.

Inportazioek portaera dinamikoagoa izan zuten hirugarren hiruhilekoan eta %13,1 hazi ziren urte arteko tasan, aurreko bi hiruhilekoetan baino gehiago. Hobekuntza hori erregai mineralen eskutik (%29,4) iritsi zen, baina energiaz bestelako produktuek ere aldakuntza tasa nabarmena (%7,2) eskuratu zuten epealdi horretan, aurreko hiruhilekoetan jasotakoen antzekoa. Automobilgintzan agertu ziren arazoak inportazioetan ere nabaritu ziren eta garraio materialaren erosketa %5,9 gutxitu zen. Oso bestelakoa da metal arrunten eta beren manufakturen bilakaera, erosketa %9,9 hazi zelako.

Beste hiruhileko batez, EAEko enpresen hornitzaile garrantzitsuak herrialde aurreratuetan daude, baina gorakada handienak garapen bidean dauden herrialdeen eremuan gauzatu ziren. Hain zuzen ere, ELGETik ekarritako ondasunen balioa %4,9 handitu zen eta gainontzeko tokietatik iritsitakoa %30,6. Berriro ere adierazi behar da tasa horien arteko aldea justifikatzen dela lehen Norvegiatik inportatzen ziren erregai mineralak orain garapen bidean dagoen herrialde batetik, kasu honetan Brasiletik, ekarri delako. Horri esker, Brasil da, Mexikoren

ondoren, EAEko bigarren hornitzaile nagusia. Halaber, esan behar da Libia urrundu dela lehen tokitik.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2016	2017	2017		2018		
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	-8,0	20,5	13,9	2,9	8,7	13,1	5.087.305
ELGE	-7,7	17,8	8,9	1,5	4,6	4,9	3.214.066
Europar Batasuna	-8,1	13,4	5,6	-6,0	2,7	3,4	2.507.938
Frantzia	9,5	6,8	5,4	4,8	11,5	4,3	698.890
Alemania	-8,9	12,0	18,9	11,9	14,5	0,6	435.720
Erresuma Batua	-51,7	62,8	-26,5	-57,0	-42,2	2,6	202.368
Italia	3,5	7,7	9,9	11,9	9,0	10,4	238.111
AEB	-3,9	18,8	34,3	0,8	-30,4	25,8	118.028
ELGETik kanpokoak	-8,5	26,9	26,5	6,4	17,0	30,6	1.873.239

Iturria: Eustat.

Energia alorreko produktuen jatorria aldatzeko joko horretan, AEBek protagonismoa berreskuratu dute hornitzaile gisa eta herrialde horretan eginiko erosketak %25,8 areagotu ziren, aurreko hiruhilekoaren bat-bateko beherakadaren ondoren. Beste aldetik, Europako herrialde handi guztiek gehiago erosi zuten EAEn, baina oro har hazkunde tasak oso txikiak izan ziren. Salbuespena Italia da (%10,4), burdina eta altzairuaren galdaketari esker (%15,2). Alemania da oraindik, alde handiz gainera, inportatzen diren produktuen jatorri behinena, batez ere makineria eta automobilak direnak. Azken horien erosketa %19,6 gutxitu zen, baina konpentsatuta geratu zen makineriaren erosketa %10,0 baino zertxobait gehiago hazi zelako. Frantziaren kasuan, burdina eta altzairuaren galdaketak (%8,8) makineria mekanikoaren jaitsiera (%-5,0) konpentsatu zuen.

Hirugarren hiruhilekoan, atzerriarekin eginiko merkataritza salerosketek EAEn aldeko saldoa, 1.079 milioi eurokoa, utzi zuten. Zenbaki hori aurreko epealdi askotan jasotakoa baino txikiagoa da. Energiatz bestelako saldoa 2.024 milioi eurokoa izan zen, aurreko hiruhilekoetan lortutakoaren antzekoa. Hala ere, energiaren saldoa, berez nahiko negatiboa izaten baita, 945 milioi eurora iritsi zen, petrolioaren salneurriak nazioarteko merkatuetan bizi zuen garestitzearen ondorioz.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen bilakaera aztertzen duten adierazleen artean, BPGaren deflatoreak jaso du berriro aldakuntza tasa txikiena, nahiz eta goranzko joera leuna erakusten duen. Hain zuzen ere, adierazle hori bigarren hiruhilekoan eskuratu zuen %1,0tik hirugarreneko %1,3ra igaro zen. Deflatorearen osagai guztiek parte hartu zuten goranzko joera horretan eta aurrekoak baino tasa altuagoak jaso zituzten. Kontsumo pribatuaren deflatorearen kasuan, hiru hamarren areagotu zen, %2,1ean kokatu arte. Beste aldetik, kapital eraketa gordinaren deflatorea lau hamarren igo zen, %2,2ra arte.

Kontsumo pribatuaren deflatorearen ildotik, KPI indizea %2,2 igo zen hirugarren hiruhilekoan, baina nabarmen leundu zuen bere aldakuntza tasa azaroan, %1,5 arte. Aurreko buletin ekonomikoetan aurreratu zenez, energiako salneurrien gorakadaren eragina desagertuko zen heinean, indize orokorra azpiko inflazioaren mailara hurbilduko zen, hura baino apalagoa baita. Hain zuzen ere, azaroan energiaren prezioek urrats bat eman zuten norabide horretan eta urte arteko aldakuntza tasa moteldu zuten, hirugarren hiruhilekoan jasotako %11,3tik azaroko %5,9ra. Moteltze horrek sei hamarreneko eragina dauka KPIaren gehikuntza tasan. Orobat, elikagai freskoen igoera txikiagoak ere lagundu zuen indize orokorra behar bezala. Bi osagai horiek hondar inflazioa delakoa osatzen dute eta adierazle hori %4,3 hazi zen azaroan, hirugarren hiruhilekoan goratu zen %8,0 hura baino nabarmen gutxiago. Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da hondar inflazioa oso hegakorra dela eta edozein momentutan igoera biziak izan ditzakeela.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	1,8	2,2	1,5	1,5
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	1,0	0,9	0,9	0,7
- Elikagai landuak (%14,3)	0,9	0,0	1,3	1,0	0,6	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	-0,1	0,0	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%43,1)	1,1	1,7	1,6	1,4	1,5	0,6
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	5,2	8,0	4,3	0,8
- Landu gabeko elikagaiak (%7,8)	2,6	3,7	3,9	3,8	2,0	0,2
- Energia (%10,4)	-8,2	8,2	6,3	11,3	5,9	0,6

Iturria: INE.

Energiaren salneurriaren jaitsiera lotuta dago petrolioak nazioarteko merkatuetan izan duen bilakaerari. Izan ere, lehengai horrek 30 dolarren inguruko merkatzea izan zuen urritik azarora bitartean, upelaren salneurria 86 dolarretatik ia 57 dolarretara beheratu baitzen, aurten izan duen preziorik merkeena baita. Jaitsiera horretarako arrazoen artean, aipatu behar da AEBetako petrolio izakinak oso nabarmen handitu zirela azken asteetan. Aldi berean, LPEE erakundea saiatu da gehiegizko eskaintza hori mugatzen, ekoizpena murrizteko berehalako akordio bat onartuz. Akordio horren bitartez Brent motako upelaren prezioak izan dituen beherakada handiak gelditu nahi ditu. Iragarpen horrek bilatzen zen ondorioa lortu zuen eta prezioa 60 dolarren gainean kokatu zen abenduaren lehen hamabostaldian.

Energiaz bestelako prezioen atalean, azpiko inflazioak, kontsumoko prezioen indizearen elementu egonkorrenak biltzen baititu, oraindik ez du bizkortzeko zantzurik erakutsi eta %0,9ko urte arteko tasa jaso zuen azaroan, aurreko balioetatik eta 2016an zein 2017an izan zituen batez besteko datuetatik asko urrundu gabe. Beraz, enpleguaren hobekuntzak eta soldata nominalen igoerak ez dira prezioetara igarotzen ari.

Azpiko inflazioaren osagai guztiek gehikuntza tasa neurritsuak izan dituzte prezioetan. Esate baterako, zerbitzuek, adierazle horren erdia baino gehiago biltzen baitute, %1,5eko batez besteko igoera izan zuten azaroan, aurreko hiruhilekoetan jaso zutenaren antzekoa eta oraindik %2,0ko erreferentziatik urrun. Beste aldetik, industria ondasunek bere horretan utzi dituzte salneurriak (%0,0) lehiari aurre egin ahal izateko, etorkizuneko hazkundeaz ziurgabetasuna nagusi den testuinguru batean, non esportazioak moteldu baitira. Azkenik, landutako elikagaiek %0,6ra leundu zuten urte arteko tasa.

Energiaren salneurriak nabarmen apaldu ziren arren, beraren urte arteko tasa oso altua da oraindik (%5,9), lehenago aipatu denez. Horrek azaltzen du zergatik gehikuntza tasa altuena duten taldeak energiarekin lotura estuena dutenak diren. Izan ere, azaroan urte arteko tasarik gorena (%2,9) garraioan eta etxebizitzan jaso zen. Lehen kasuan, gehikuntzaren arrazoa erregaiak dira eta bigarrenean berogailuetarako gasolioa, baina baita argindarra ere. Beste talde batzuk ere %2,0aren gainetik kokatuta daude, hala nola edari alkoholduak eta tabakoarena (%2,3), komunikazioena (%2,2) eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak biltzen dituen (%2,1). Lehen bi kasuetan, hazkundea nabarmen apaldu dela begi bistakoa da. Aitzitik, azken talde horretan kontrako norabidea hauteman da eta aurreko datuetan baino gehikuntza tasa altuagoa izan du.

Beste muturrean, aisialdia eta kulturarekin lotura duten produktuek prezioak jaitsi zituzten 2017ko azaroaren aldean (%-0,7). Beste aldetik, bai osasunak (%0,2) bai etxerako altzariak

(%0,7), bai irakaskuntza (%0,8) bai elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (%0,9) oso aldakuntza tasa txikietan daude kokatuta.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018				Azaroa
			IV	I	II	III	
Indize orokorra	0,0	2,0	1,4	0,9	1,8	2,2	1,5
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,6	1,2	2,0	1,2	2,2	1,8	0,9
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,4	1,7	1,7	1,5	2,4	2,7	2,3
Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,7	0,4	0,6	1,3	1,2	1,0
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-4,1	3,7	1,9	0,0	2,0	4,9	2,9
Etxeko hornidura	0,5	-0,3	-0,8	-0,3	0,4	0,4	0,7
Medikuntza	1,0	1,1	0,4	0,2	0,1	0,1	0,2
Garraioa	-1,8	4,3	2,7	1,5	4,2	5,2	2,9
Komunikazioak	2,6	1,3	0,5	1,8	2,6	2,7	2,2
Aisia eta kultura	-1,0	1,9	1,3	0,2	-0,1	-1,2	-0,7
Irakaskuntza	0,6	1,6	1,5	1,1	1,0	1,0	0,8
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,0	1,8	1,9	1,8	1,7	1,8	2,1
Besteak	1,7	0,7	0,1	0,2	0,4	1,0	1,6

Iturria: INE.

Fabrikatik irteerako industria prezioei dagokienez, IPRIaren bitartez kalkulatuta, indize orokorra oraindik balio altuetan (%4,1) dago kokatuta, azken hilekoetan apaltzeko joera txikia marraztu duen arren. Indizea osatzen duten osagaien bilakaera kontrajarria izan da. Mutur batean, energiaren ekoizpenak oraindik %13,8 garrantzitsu bat goratu ditu bere prezioak. Beste muturrean, kontsumorako ondasunen salneurria %0,8 baino ez da handitu urte arteko tasan. Aipatu diren bi horien artean kokatu dira bitarteko ondasunak (%3,2), beste lehengai batzuei lotuta baitaude, eta ekipamendurako ondasunak (%1,3). Kasu guztietan, prezioen igoera zertxobait leundu dela hauteman da.

Lan kostuen esparruan, indarrean dauden lan hitzarmenen informazioak seinalatzen du urria arte adostu diren soldata igoerak aurreko urteetakoak baino altuagoak direla. Izan ere, 2018ko batez besteko gehikuntza tasa %1,8an dago kokatuta oraingoan, hots, 2017ko igoera baino hiru hamarren gorago. Halaber, urtean zehar sinatu diren hitzarmenek (%2,1) urteko batez bestekoa baino gehikuntza altuagoa onartu dute. Beste aldetik, sektoreko hitzarmenek (%1,9)

enpresetan sinatutakoek (%1,5) baino igoera handiagoa jaso dute. Halakorik ez zen gertatu aurreko bi urteetan.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	0,7	0,6	1,0	1,5	1,8
- Urtean zehar sinatutakoak	0,5	0,7	1,1	1,7	2,1
Negoziazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	0,7	0,6	1,0	1,5	1,9
- Enpresako hitzarmenak	0,6	0,6	1,1	1,5	1,5

(*) 2018ko urria arte erregistratutako hitzarmenak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

INEk argitaratzen duen lan kostuen inkestak ere lan kostuen gorakada iradokitzen du, hala soldaten kostuena nola gainontzeko kostuena. Izan ere, langile bakoitzeko kostua %3,7 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, aurreko epealdietan baino askoz ere gehiago. Lan egindako ordu bakoitzeko datua ere (%4,1) aurrekoa baino nabarmen altuagoa da. Estatistika horrek gorabehera handiak izaten dituen arren, lehen hiru hiruhilekoetako batez besteak pentsarazten du 2018ko kostuak 2017koak (%0,5) baino dezente gehiago haziko direla.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
Lan kostu guztiak langileko	-0,9	0,5	1,1	1,2	1,6	1,6	3,7
- Soldata kostua guztira	-1,1	0,1	1,1	0,8	1,6	1,1	3,6
- Bestelako kostuak	-0,3	1,6	1,1	2,4	1,7	3,2	3,8
Lan kostu guztiak orduko	0,4	0,2	-1,8	0,7	5,0	-2,5	4,1
- Soldata kostua guztira	0,2	-0,2	-1,7	0,3	4,9	-3,1	4,1
- Bestelako kostuak	1,0	1,2	-2,0	2,0	5,1	-1,0	4,4
Adostutako lan orduak	-0,6	-0,1	0,1	0,1	0,5	0,3	-0,2
Benetan egindako lan orduak	-1,0	0,0	3,0	0,4	-3,2	4,3	-0,5

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu egikaritzaren datuek, azaroa arte eskuragarri baitira, bi portaera ezberdin aurkeztu zituzten, aldagai finantzarioa kontuan hartzen denean edo kanpoan hartzen denean. Izan ere, finantzatzeko ahalmena edo beharra aztertzen denean, aldeko emaitza lortzen da, aipatu den epealdi horretan %8,6 hazi zelako. Hobekuntza horren atzean, diru sarrera arrunten igoera txiki bat (%0,6) eta gastu arrunten murrizketa leuna (%-0,1) aurkitzen dira. Gastu horien bilakaeran, azpimarratu behar da bai funtzionamenduko gastuek (%2,5) bai pertsonaleko gastuek (%1,8) izan zuten goranzko joera. Aitzitik, finantza gastuak berriro gutxitu ziren (%-7,6), zor gutxiago amortizatzeko eta interes tasa apaleko eszenategi batean finantza zama murriztu delako.

EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUKO ERAGIKETAK (urtarrila-azaroa)

Mila euro

	2017	2018	Aldaku. %
1. SARRERA ARRUNTAK	9.096.527	9.153.933	0,6
2. GASTU ARRUNTAK	7.891.249	7.882.851	-0,1
Langileen gastuak	1.741.829	1.772.349	1,8
Funtzionamenduko gastuak	2.976.628	3.051.384	2,5
Finantza gastuak	173.881	160.585	-7,6
Transferentzia arruntak	2.998.911	2.898.533	-3,3
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	1.205.278	1.271.082	5,5
4. KAPITALEKO SARRERAK	45.004	67.912	50,9
5. KAPITALEKO GASTUAK	523.966	550.199	5,0
Inbertsio errealak	131.778	116.238	-11,8
Kapitaleko transferentziak	392.189	433.961	10,7
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	726.316	788.795	8,6
7. FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-30.067	-17.209	42,8
8. FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	458.281	46.188	-89,9
9. AURREKONTU SUPERABITA/DEFIZITA (6+7+8)	1.154.530	817.774	-29,2
10. AURREKONTU SUPERABITA/DEFIZITA KUTXA TERMINOTAN	1.147.244	1.064.417	-7,2

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila.

Analisian finantza aktiboen eta pasiboen aldakuntza sartzen denean, 818 milioi euroko aurrekontu superabita lortzen da, 2017ko epealdi berean zegoena baino %29,2 txikiagoa baita. Kutxa terminotan eskuratzen den emaitza are positiboagoa da, 1.064 milioi eurora iristen delako eta jaitsiera (%-7,2) apalagoa delako. Kobratzeko dauden eskubideek azaltzen dute jaitsiera horren zati handi bat, 2017an zeuden ia 275 milioi euroetatik aurtengo 33 milioi euroetara igaro direlako.

Foru aldundien zerga bidezko diru bilketari dagokionez, urria arte, hori baita ezagutu den azken hilekoa, diru bilketak aurreikuspenak gainditu zituen eta zenbaki altuak jaso zituen bai 2017arekiko aldakuntza tasan (%6,8) bai termino absolutuetan (12.447 milioi euro). Gorakada horiek datozen hilekoetara luzatuko direla eta aurtengo diru bilketa inoizko altuena izango dela aurreikusten da.

Berriro ere, nabarmendu behar da zuzeneko zergak erakutsi duten portaera ona (%10,4), hala sozietateen gaineko zergak (%22,7) nola PFEZ (%6,8). Azken zerga horrek bereziki lanaren etekinen gaineko atxikipenetan (%4,3) oinarritu zuen bere bilakaera, enpleguaren hobekuntzak eta soldata nominalen igoerak lagunduta. Orobat, bere intentsitatearengatik azpimarratu behar dira loterien gaineko zergaren hazkundea (%81,6), kapital higigarriaren errenten gaineko atxikipenena (%14,4) eta inbertsioko funtsen atxikipenen tasa positiboa (%23,8), figura honek aurreko urteetan jaso zuen jaitsieren ondoren. Beste aldetik, sozietateen gaineko zergak diru sarrera handiak izan zituen bigarren ordainketa zatituaren ondoren, enpresen mozkinen hobekuntzari esker.

Zuzeneko zergak bezala, zeharkako zergak ere erritmo bizian hazi ziren (%8,7). Izan ere, bertan kudeatzen den BEZak %11,7ko gehikuntza lortu zuen, kontsumoan eginiko gastuaren hobekuntzari esker, nahiz eta agregatu makroekonomiko horrek hirugarren hiruhilekoan moteltze arina ezagutu zuen. Familien eskariaren bizitasunaz gain, erregaien garestitzea ere aipatu behar da, BEZ zergan zeharkako eragina daukalako. Beste aldetik, BEZaren doikuntzak ekarri dituen diru sarrera txikiagoak dira (%-11,3), 2017an Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan onartu ziren erregularizazio akordioaren zati bat sartu zelako.

Azkenik, bertan kudeatutako zerga bereziak 2017ko urrian zeukaten maila bertsuan kokatu dira (%1,4), berauek osatzen duten elementu guztiek, alkoholaren gaineko zerga (%-39,3) izan ezik, tasa positibotan daudelarik. BEZarekin gertatzen den bezala, zerga horiek ere energiaren garestitzearen eragina nabaritu dute. Izan ere, hala argindarrak (%4,4) nola hidrokarburoek (%1,0) aldakuntza tasa positiboak jaso zituzten, azken horien kontsumo fisikoa gutxitu bazen ere.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-urria)

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa		
	2017	2018	Aldakuntza %
PFEZ	4.089.018	4.366.981	6,8
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.003.893	4.174.087	4,3
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	143.870	164.567	14,4
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	68.823	69.576	1,1
- Ondare irabazien atxikipenak	35.142	43.515	23,8
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	23.833	43.287	81,6
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	136.038	144.401	6,1
- Kuota diferentzial garbia	-322.580	-272.451	15,5
Sozietateen gaineko zerga	1.186.022	1.455.236	22,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	143.870	164.567	14,4
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	68.823	69.576	1,1
- Ondare irabazien atxikipenak	35.142	43.515	23,8
- Kuota diferentzial garbia	938.188	1.177.579	25,5
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	26.063	28.936	11,0
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	98.484	109.172	10,9
Ondarearen gaineko zerga	161.670	181.626	12,3
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.823	24.565	-1,0
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	23.572	24.969	5,9
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	5.609.653	6.191.486	10,4
BEZaren bertoko kudeaketa	3.083.567	3.444.897	11,7
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	117.256	130.547	11,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	30.710	38.168	24,3
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	17.406	21.568	23,9
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.377.055	1.396.375	1,4
Aseguru sarien gaineko zerga	61.531	63.579	3,3
Joko jardueren gaineko zergak	5.053	5.848	15,7
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	4.035	3.785	-6,2
Iraungitako zergak	-7.067	-8.104	-14,7
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	4.689.545	5.096.663	8,7
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	84.480	96.058	13,7
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	10.383.678	11.384.207	9,6
BEZaren doikuntza	1.483.593	1.316.371	-11,3
Zerga berezian doikuntza	-215.661	-253.983	-17,8
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	11.651.610	12.446.595	6,8

Iturria: Foru aldundiak.

Arlo finantzarioa

Udako amaierak nahiko tonu positiboa utzi ondoren, urrian finantza merkatuek berriro pairatu zuten hagakortasunaren gorakada, arazora ere luzatu zena. Zehatz-mehatz adierazita, Europan bizi ziren tentsio politikoek, bereziki Brexitari buruzko negoziatioek eta Italiaren aurrekontu proposamenak, eta AEBen eta Txinaren arteko merkataritza tentsioek ezegonkortasunaren gehikuntza orokorra ekarri zuten. Aurreko guztiari erantsi behar zaio dolarrak eta euroak azaleratzen ari diren herrialdeen dibisen aldean izan zuten balio irabazia, herrialde horietako merkatuak kalteberagoak bihurtzen dituztela, baina baita ere inbertitzaileek erakutsi zuten arriskua saihesteko joera biziagoa, une hauetan bizi den ekonomiaren moteltzea pentsatzen dena baino larriagoa izan daitekeelako.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2016	2017	2018					
			Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	0,75	1,50	2,00	2,00	2,00	2,25	2,25	2,25
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,25	0,50	0,50	0,50	0,75	0,75	0,75	0,75
Txinako Banku Popularra	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35
Brasilgo Banku Zentrala	13,75	7,00	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50
Alemaniko 10 urteko zor publikoarekiko aldea (oinarri puntuak)								
Espainia	119	114	102	97	117	104	119	120
Grezia	690	369	365	351	406	371	384	396
Portugal	357	151	147	133	159	141	150	153
Erresuma Batua	103	76	97	88	110	110	105	105
Italia	161	157	237	227	291	268	308	292

Iturria: Europako Banku Zentrala eta Espainiako Bankua.

Ezinegon hori egon arren, eta hirugarren hiruhilekoan munduko hazkunde tasa zertxobait apaldu bazen ere, Europako Banku Zentralak (EBZ) eta Erreserba Federalak (Fed) eszenategi makroekonomikoaz duten ikuspegi positiboari eutsi zioten eta moneta politika normalizatzeko egitasmoei jarraipena eman zieten. Hori horrela izanda, EBZk bere horretan (%0,0) utzi zuen esku hartzeko interes tasa eta abenduan aktiboak erosteari utzi egingo diola baieztatu zuen. Erreserba Federalak, berriz, ez zuen inolako aldakuntzarik egin urrian eta azaroan, eta

erreferentziako tasa %2,0-%2,25 urkila barruan utzi zuen. Orobat, bere balantzea gutxitzen jarraitu zuen. Hala ere, datu makroekonomiko onek abenduan esku hartzeko tasa berriro igoko duela pentsarazten dute.

Beste aldetik, Japoniako Bankuak bere horretan utzi zuen moneta politika, malgutasunezko neurri sorta handi batean oinarrituta baitago, eta beherantz berrikusi zituen inflazioaren eta ekonomia hazkundearen aurtengo aurreikuspenak. Azkenik, Ingalaterrako Bankuak ere aurtengo eta datorren urterako hazkunde aurreikuspena beheratu zuen, Brexitaren ondorioengatik, eta %0,75ean utzi zituen interes tasak, pizgarrien egitasmoari eutsiz. Egitasmo horren bitartez, 445.000 milioi libera bideratzen ditu zor pribatuko eta, batez ere, subiranoko bonuak erostera.

Zorraren merkatuetan, Italiako aurrekontuari buruzko ziurgabetasunak periferiako arrisku sariei kalte egin zien. Alemaniako zorra, beste behin ere, babes aktibo gisa hartu zen eta 10 urterako bonuaren etekina 16 oinarri puntu jaitsi zen irailetik azarora bitartean. Aldi berean, periferiako sariak areagotu ziren. Hain zuzen ere, Italiako saria urriaren erdialdean 333 puntutik gora kokatzera iritsi zen, 2013ko martxotik inoiz izan duen baliorik gorena baita. Garai hartan Europako Batzordeak Italiako aurrekontuak atzera bota zituen, aurrekaririk gabeko neurria delarik 20 urtean, egonkortasuneko itunaren araei ez zirelako egokitzen. Italiako egoerak eragina izan zuen Espainian ere eta bertako errentagarritasuna %1,8aren inguruan kokatzera iritsi zen, iazko urriko lehen egunetatik inoiz izan den finantzazioko kosturik altuena dena. Orobat, Greziako arrisku saria oso kaltetuta atera zen eta 400 puntuetatik gora geratu zen.

Nazioarteko burtsa nagusiei dagokienez, urrian bertan behera geratu zen iraileko tonu eraikitzailea, zurrumbiloz beteriko uda baten ondoren. AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gatazkak nabarmen igoarazi zuen hegakortasuna, indize nagusiak beheratuz. Urrian, galerak agertu ziren burtsa amerikarretan eta arriskua saihesteko nahia ekarri zuten, nazioarteko burtsa nagusiak kaltetuz. Izan ere, S&P 500 indizeak hileko bakar batean %6,9 galdu zuen, beraren balioaren goratzea urte hasierako %9,0tik %1,4ra. Are gehiago, European, indizeak kaltetuta geratu ziren ekonomia hazkundearen datuak etsigarriak izan zirelako, batez ere Alemanian, eta Italiaren eta Europako Batzordearen artean tentsioa areagotu zelako, Italiako politika fiskala dela eta. Aurrekoaren ondorioz, Eurostoxx 50 indizea 3.200 puntuen azpira jaitsi zen. Espainiar merkatuan, IBEX 35 indizea %11,5 jaitsi zen, urrian 8.800 puntuetara beheratuz. Asian, Tokioko Nikkei indizea %3,7 jaitsi zen, 22.000 puntuen azpian kokatu arte.

Azaroan, AEBen eta Txinaren artean dagoen merkataritza gerran hauteman zen hurbilketak, txikizkako salmentak bai AEBetan bai European izan zituen zenbaki positiboek (neurri handi batean Black Fridayk bultzatuta) eta Brexitari buruz hasierako akordio bat lortu izanak bide

eman zieten indizeei zertxobait gorantz egiteko eta aurreko hilekoan galdutakoaren zati bat berreskuratzeko. Hala eta guztiz ere, munduko burtsa nagusiek oraindik galerak jasotzen ari dira.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2016	2017	2018					
			Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,107	1,129	1,168	1,169	1,155	1,166	1,148	1,137
Yena/euro	120,3	126,7	128,53	130,23	128,20	130,54	129,62	128,79
Libera esterlina/euro	0,819	0,876	0,879	0,887	0,897	0,892	0,883	0,881
Yena/dolarra	108,8	112,2	110,1	111,4	111,0	112,0	112,9	113,3
€ efektibo nominala (%)	94,4	96,6	97,9	99,2	99,0	99,5	98,9	98,3
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	-2,0	7,4	-4,2	-1,7	-6,4	-6,5	-11,5	-9,6
Eurostoxx-50	0,7	6,5	-3,1	0,6	-3,2	-3,0	-8,7	-9,4
Dow Jones	13,4	25,1	-1,8	2,8	5,0	7,0	1,6	3,3
Nikkei 225	0,4	19,1	-2,0	-0,9	0,4	6,0	-3,7	-1,8
Standard & Poors	9,5	19,4	1,7	5,3	8,5	9,0	1,4	3,2

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilearen azken egunera arte.
Iturria: Europako Banku Zentrala eta Espainiako Bankua.

Dibisen merkatuari dagokionez, euroak ahultasuna erakutsi zuen dolarraren aldean, baina sendoago ibili zen azaleratzen ari diren herrialdeetako dibisen aldean. Fed-aren moneta politika gogorragoa izateak eta datu makroekonomikoak onak izateak indarra eman zioten dolarrari gainontzeko dibisen aldean. Orobat, Italian sortu diren tentsio politikoek eta Euroguneko jardueraren adierazleen etsipenak eragina izan zuten euroaren kotizazioan. Hain zuzen ere, azaroaren erdialdean diru bakarraren balioa 1,12 dolarretara jaitsi zen, aurtengo baliorik txikiena baita. Liberari dagokionez, Brexitari buruz hasierako akordio bat egoteak dibisa britainiarra gorarazi zuen, euroaren aldean balioa irabaziz. Azaleratzen ari diren herrialdeetako dibisen aldean, euroak balio apur bat irabazi zuen. Zehazkiago adierazita, arrazoia ez zen izan euroak balioa irabazi zuela, baizik eta hala peso argentinarrak nola erreal brasildarrak balioa galdu zutela. Aurreko aldakuntza guztien ondorioz, euroaren benetako truke tasa nominalak balioa galdu zuen, azaroan %98,3an kokatu arte.

Ezgonkortasuna euriborraren bilakaeran ere hauteman zen, azaroaren amaieran $\%-0,147$ an geratu baitzen, aurreko hilekoan jasotako $\%-0,154$ aren aldean. Gehikuntza tasa hori, termino errealetan hutsala baita, martxotik eskuratu zen $\%-0,191$ minimotik gertatu den zortzigarren igoera da. Urte amaieran, indize hori zenbaki negatibotan amaituko den arren, goranzko joera arinari eusten dio.



Edozein modutan, interes tasek maila apaletan jarraitu zuten eta, Espainiako Bankuak argitaratzen duen Bankuen Maileguz buruzko Inkestak bildutako datuen arabera, familiei emandako finantzazioari dagokionez, erakunde nazionalak irizpideak eta baldintzak kontsumorako kredituetan erlaxatu zirela adierazi zuten, etxebizitza erosteko maileguz egonkortasuna aipatu zuten bitartean. Horrek lagundu zuen 4.392 hipoteka sinatzen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, hots, aurreko urteko epealdi berean adostu zirenak baino $\%4,5$ gehiago.

Sei hilekoz jarraian jaitsierak jaso ondoren, bigarren hiruhilekoan hasitako goranzko joerari segida eman zion hirugarren hiruhilekoaren datuak. Dena dela, apiriletik ekainera bitarteko epealdian hirugarren hiruhilekoan baino 179 hipoteka gehiago sinatu ziren. Beraz, oraingoz, ezin da ziurtatu joera garbirik dagoenik. Hipoteken bitartez emandako dituen kopurua ere hazi zen, kasu horretan $\%9,9$, eta 613.000 milioi euroetatik hurbil geratu zen. Azkenik, tasa finkora sinatutako hipotekak, lehenengo aldiz, $\%40,0$ izan ziren, tasa finkora sinatutakoak $\%59,9$ izan ziren bitartean.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hiler



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Aurreikuspenak

2018ko azken hilekoetan, nazioarteko erakunde batzuek argitaratu dituzten aurreikuspenek aurreko txostenetan iradokitzen zutena baino ziurgabetasun handiagoa aurkeztu dute ekonomiaren hazkundeari dagokionez. Epe laburrerako hazkunde aurreikuspenak zertxobait beheratu dituzte eta, Consensus Forecastsek abenduako buletinean zehazten duenez, munduko ekonomiaren aldakuntza tasa %3,2 izango da 2018an eta %3,0, berriz, 2019an. Bizitasunaren moteltze arin horren azpian ziurgabetasuna areagotu duten hainbat alderdi daude, hala nola merkataritza politika, Brexitari buruzko negoziazioak eta tentsio geopolitikoak. Laburbilduz, aurrekontu makroekonomikoen ingurunean, etorkizun hurbilean gertakari negatiboak gauzatzeko probabilitateak albiste positiboena gaitzen du.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
Munduko ekonomia	3,2	3,2	3,0	2,5	3,0	2,8
AEB	2,2	2,9	2,6	2,1	2,4	2,1
Kanada	3,0	2,1	1,9	1,6	2,3	1,9
Japonia	1,9	0,9	1,1	0,5	1,0	0,9
Eurogunea	2,5	1,9	1,6	1,5	1,8	1,6
Europar Batasuna	2,4	1,9	1,7	1,7	1,9	1,8
Alemania	2,2	1,6	1,5	1,8	1,9	1,9
Espainia	3,0	2,6	2,2	2,0	1,8	1,5
Frantzia	2,3	1,6	1,6	1,0	2,0	1,5
Herbehereak	2,9	2,7	2,0	1,4	1,7	2,3
Italia	1,6	1,0	0,7	1,2	1,2	1,3
Erresuma Batua	1,7	1,3	1,5	2,7	2,5	2,1
Asia eta Ozeano Barea	5,1	4,8	4,6	1,7	2,1	2,2
Ekialdeko Europa	3,9	3,1	2,1	4,9	6,3	7,2
Amerika Latina	1,9	1,5	2,1	6,8	9,5	7,0

Iturria: Consensus Forecasts (2018ko abendua).

Ekonomia aurreratuetan, ekonomiaren hazkundeak sendotasunari eutsiko dio. AEBetan, hazkunde hori %2,9an kokatuko da 2018an eta zertxobait gutxituko da datorren urtean, %2,6ra arte, Consensus Forecastsen arabera. Zikloaren aldeko hedatze fiskalak eta finantziaziorako baldintza egokiek estatubatuar ekonomia bultzatuko dute, bereziki 2018an.

Faktore horiek indarra galduko dute 2019an. Beste ekonomia aurreratu batzuetan, hala nola Eurogunean, Korean eta Erresuma Batuan, epe laburrerako aurreikuspenak beherantz zuzendu dituzte 2018-2019 epealdirako.

Beheranzko zuzenketa esanguratsuenak azaleratzen ari diren merkatuentzako aurreikuspenetan gauzatu dira. Izan ere, Txinarako hazkunde aurreikuspenak okertu dira, AEBek Asiako herrialde horri ezarri dizkioten muga zergen ondorioz. Alde batetik, merkataritza alorreko ziurgabetasunaz gain, baldintza finantzarioak okertzen ari dira azaleratzen ari diren eta garapen bidean dauden ekonomientzat, Erreserba Federalak onartu dituen interes tasa altuagoei eta Europako Banku Zentralak aktiboak erosteko politika amaituko duelako iragarpenari egokitu beharko direlako. Ekonomia horiek zaugarriagoak dira testuinguru finantzario horretan zor maila altua dutelako.

Eurogunean, Consensus Forecastsek aurreikusi duen ekonomia hazkundea %1,9an kokatuko da 2018an eta %1,6an, berriz, datorren urtean. Tasa horiek beheranzko zuzenketa txiki bat ekarri dute bi urteetarako, une hauetan bizitasun txikiagoa espero delako herrialde batzuetan, hala nola Alemanian, Frantzia eta Italian. Ekonomia hazkundearen aurreikuspenak zertxobait okertu dira eta merkataritza alorreko tentsioak areagotu dira. Hala eta guztiz ere, oraindik pentsatzen da Europako barne eskariak nolabaiteko bizitasuna ekarriko duela ekonomia jardueran eta langabezia tasak gutxituko dituela. Lan merkatuaren hobekuntzak, soldaten igoera leunak eta estatu kide batzuetan ezarriko diren hedatze fiskalerako neurriek gorantz bultzatuko dute kontsumo pribatua. Halaber, inbertsioak hazkundeari atxikiko dio, baldintza finantzarioek lagunduko dutelako, baita moneta politikak normalizatzeko urratsak emango dituela jakinda ere. Eszenategi makroekonomiko horretan agertzen diren beheranzko arrisku nagusiak, bereziki, Brexitaren negoziazioan akordiorik ez lortzea, moneta politika murriztaileago bat eta tentsio politikoen igoera.

Consensus Forecastsek espainiar ekonomiarentzat zenbatetsi duen aurreikuspenak %2,6an kokatzen du hazkunde tasa 2018an eta %2,2an, berriz, 2019an. Beste aldetik, Ceprede bat dator 2018ko aldakuntza tasarekin eta %2,3an uzten du 2019koa. Barne eskaria izango da ekonomiaren bultzagile nagusia, baina moteltzeko joera erakutsiko du kontuan hartu den denboraldian zehar. Beste aldetik, merkatu batzuetan onartuko diren erabaki protekzionistek kanpo eskaria kaltetu dezakete. Halere, merkatu horietako galera konpentsatuta gera daiteke Afrikan eta Amerika Latinoan gehiago salduz, ekonomia eremu horietarako aurreikuspenak onak baitira.

Enpleguari dagokionez, Ceprede ez ditu 2018rako aurreikuspenak aldatu eta zertxobait hobetu ditu 2019rakoak. Izan ere, lanaldi osoko lanpostu baliokideen aldakuntza tasa %2,5 izango da

2018an eta %2,1, berriz, datorren urtean. Beste aldetik, langabezia tasari buruzko aurreikuspenek %15,3an kokatzen dute 2018ko datua eta %13,8an 2019koa. Emaizta horiek aurreko eszenategietan argitaratu zituenak baino baikorragoak dira.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2018ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak	2018		2019				2019
	IV	2018	I	II	III	IV	
BPG	2,6	2,6	2,6	2,5	2,3	2,0	2,3
Kontsumo pribatua	2,2	2,4	2,1	2,1	1,9	1,8	2,0
Kontsumo publikoa	2,3	2,2	2,1	2,1	2,0	1,8	2,0
Kap. finkoaren eraketa gordina	6,3	6,1	5,8	4,2	3,8	3,3	4,2
- Inbertsioa ekipamenduan	9,6	8,0	9,4	5,8	5,6	5,0	6,4
- Inbertsioa landutako aktibotan	-3,3	-3,8	-0,3	0,3	0,9	1,8	0,7
- Inbertsioa eraikuntzan	5,4	5,9	4,5	3,9	3,3	2,7	3,6
Barne eskaria	3,1	3,2	2,9	2,5	2,2	1,9	2,4
Esportazioak	0,7	1,7	1,4	2,1	2,9	3,0	2,3
Inportazioak	2,2	3,5	2,3	2,2	2,7	2,7	2,5

Iturria: CEPREDE.

Testuinguru makroekonomikoaz eskuragarri dagoen informazio berriarekin eta koiunturako adierazleekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa, 2018-2019 epealdirakoa, eguneratu du. Urte horietarako hazkunde aurreikuspenak bat datoz aurreko hiruhilekoan argitaratu ziren emaitzekin. Beraz, oraindik pentsatzen da ekonomia jarduera erritmo onean haziko dela, nahiz eta moteltzeko joera arina hautemango den. Izan ere, BPGaren aldakuntza aurreikuspenak %2,8an eta %2,3an utzi dira, hurrenez hurren, 2018rako eta 2019rako. Hiruhileko arteko hazkunde tasak %0,5aren inguruan ibiliko dira aztertu diren bost hiruhilekoetan.

Barne eskaria da EAEko ekonomiaren bultzagile nagusia. Osagai horrek 2,8 puntuko ekarpena egingo dio hazkundeari 2018an eta 2,4 puntukoa, berriz, 2019an. Lan merkatuaren hobekuntzak eta soldaten igoerak familien kontsumoa goraraziko dute. Txanponaren ifrentzua petrolioaren balizko garestitzea eta krisian zehar geroratu zen eskaria jadanik asebeteta egotea dira. Barne eskariaren beste agregatu nagusiari dagokionez, kapital eraketa gordinak irudi dinamikoari eutsiko dio, neurri batean, finantzaziorako baldintza egokiei esker. Eszenategi

makroekonomiko berrian kontuan hartu den epealdian, bai esportazioek bai inportazioek norabide berean ibiliko dira eta ez diote inolako ekarpenik egingo hazkunderari 2018an, ez zentzu batekoa ez bestekoa. Aitzitik, 2019an ekarpen negatiboa baina txikia egingo dio.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2018ko abendua)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018		2019				2019
	IV	2018	I	II	III	IV	
BPG	2,6	2,8	2,4	2,3	2,2	2,2	2,3
Azken kontsumoa	2,2	2,4	2,1	2,1	2,1	2,0	2,1
Kontsumo pribatua	2,3	2,5	2,2	2,2	2,1	2,0	2,1
Kontsumo publikoa	1,6	1,9	1,9	1,8	1,9	2,0	1,9
Kapital eraketa gordina	3,7	4,0	3,3	2,9	2,9	2,7	3,0
Barne eskariaren ekarpena	2,6	2,8	2,5	2,4	2,4	2,3	2,4
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	0,0	-0,1	-0,1	-0,2	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-7,4	-3,6	-7,0	-3,9	-8,0	8,3	-2,6
Industria eta energia	2,3	2,8	2,5	2,3	2,1	2,0	2,2
Eraikuntza	3,2	3,7	2,9	2,1	1,9	1,7	2,1
Zerbitzuak	2,7	2,8	2,6	2,5	2,5	2,3	2,4
Balio erantsi gordina	2,6	2,8	2,5	2,3	2,2	2,2	2,3
ekoizkinen gaineko zergak	2,5	2,8	2,2	2,2	2,0	2,0	2,1
BPGaren deflatorea	1,3	1,1	1,3	1,4	1,4	1,6	1,4
Enplegua	1,8	2,0	1,6	1,4	1,4	1,2	1,4
Langabezia tasa	9,8	10,2	9,8	9,7	9,5	9,5	9,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Eskaintzari dagokionez, oraindik aurreikusten da ekoizpen sektore ia guztiek balio erantsi gordinari ekarpen positiboak egingo dizkiotela, salbuespen bakarra nekazaritza eta arrantza izango dela, kontuan hartu diren bi urteetan narriadura bizia pairatuko duelako. Gainontzeko jarduera adarren artean, azpimarratu behar da eraikuntza izango dela dinamikoena 2018an, ondoren industria eta zerbitzuak etorriko direla. 2019rako, ez dago alde handirik beraien artean eta aldakuntza tasek bizitasuna moteltzeko joera arina erakutsiko dute.

Lan merkatuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako oraingo aurreikuspenek %2,0an kokatzen dute enpleguaren 2018ko hazkundera eta %1,4an, berriz, datorren urteko batez besteko aldakuntza


tasa. Datu horiek bat datoz aurreko hiruhilekoan argitaratu zirenekin eta adierazten dute 2018an, gutxi gorabehera, lanaldi osoko 19.000 lanpostu baliokide sortuko direla eta 2019an, berriz, 13.500 inguru. Langabezia tasari dagokionez, aurreikuspenak zertxobait hobetu dira eta 2018an %10,2an kokatuko dela espero da, 2019an %9,6ra jaitsiko den bitartean, bi zenbaki horiek urteko batez bestekoak direla.

2018ko eta 2019ko aurreikuspenak Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2018



Aurreikuspen panela 2019



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, CEPREDE (2018ko urria), BBVA (2018ko azaroa), Confebask (2017ko abendua), Laboral kutxa (2018ko abendua), Funcas (2018ko azaroa) eta Hispalink (2018ko uztaila BEGren aldakuntza).

Eusko Jaurlaritzako aurreikuspenek erdiko tokia betetzen dute 2018rako aurreikuspenak zenbatetsi duten erakundeen artean. Mutur batean, Hispalink-ek kalkulatu duen %2,6 dago eta bestean Funcasen %3,3. 2019. urterako, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspena zuhurrenetako bat da.